

Basque - Agape Liburu Santuek - God's Love Letter Scriptures

Joan 15:9 Aitak maite nauen bezala, halaxe maite zaituztet nik ere zuek; iraun tinko nire maitasunean.

Isaias 43:1 Baina orain, Israel, Jakoben herri, honela mintzo zaizu Jauna, sortu eta eratu zaituena: «Ez izan beldur, askatu egin baitzaitut eta zeure izenez deitu: nirea zara zu.

Jeremias 1:5 «Amaren sabelean sortu aurretik aukeratu zintudan; sabeletik irten aurretik sagaratu zintudan eta profeta izendatu, nire mezua herriei iragartzeko».

Joan 15:16 Ez ninduzuen zuek ni aukeratu, neuk zintuztedan zuek aukeratu. Eta eginkizun hau eman dizuet: edonon fruitu ugaria eta iraunkorra eman dezazuela. Nire izenean Aitari eskatuko diozuen guztia, eman egingo dizue.

3 Joan 1:2 Adiskide maite, espirituz ongi doakizun bezala, beste gauza guztietan ere ongi joan dakizula eta osasuna izan dezazula.

Isaias 43:4 hain preziatua baitzara niretzat: biziki estimatzen eta maite zaitudalako, gizakiak ematen ditut zure truke, herriak zure biziaren ordain.

Jeremias 31:3 Urrutitik agertu natzaio eta esan diot: Maite zaitut, betidanik maite, horregatik natzaizu etengabe leial.

Oseas 11:8 «Nola utziko zaitut, Efraim? Nola zapuztuko zaitut, Israel? Nola zu bertan behera utzi, Adma utzi nuen bezala? Nola egin zuri, Tzeboimi egin niona?Ikara degit bihotzak, gupidaz beterik.

Joan 3:16 «Izan ere, Jainkoak hain maite izan zuen mundua, non bere Seme bakarra eman baitzion, harengan sinesten duenik inor gal ez dadin, baizik betiko bizia izan dezan.

Isaias 49:15,16 Ahaztu ote dezake amak bere haurtxoa edo bere sabeleko umeari errukia ukatu? Ba, amak haurra ahaztuko balu ere, nik ez zaitut ahaztuko. 16 Neure esku barruan zauzkat grabatua, zure harresiak begi aurrean ditut.

Isaias 41:13 Nik, Jaunak, zeure Jainkoak, eskutik heltzen baitizut eta esaten: “Ez beldurtu, neuk laguntzen dizut!”»

Mateo 28:20 eta nik agindu dizuedan guztia betetzen irakatsiz. Eta ni zeuekin izango nauzue egunero munduaren azkena arte».

Joan 14:1 «Ez izan kezkarik: sinetsi Jainkoarengan eta sinetsi niregan ere.

Isaias 41:14 Hau dio Jaunak: «Ez izan beldur, Israel, Jakoberen herri, hartxo bat bezain ezerez eta ahul zaren hori! Neuk laguntzen dizut; ni, Israelen Jainko santua, nauzu askatzaile.

Isaias 43:2 Ibaiak pasatzean, zurekin izango naiz: urek ez zaituzte hondoratuko; sutatik igarotzean, ez zara erreko, ez zaitu sugarrak kiskaliko.

Salmoak 22:1-6 Daviden salmoa. Jauna dut artzain: ez zait ezer falta. 2 Larre guritan etzanarazten nau, ur baretara eramaten, 3 eta indarrak berritzen; bide egokitik narama, leiala delako. 4 Ibar beltz-ilunetan banabil ere, ez dut inolako gaitzen beldurrik, zu nirekin baitzaude: zure artzain-makilak lasaitzen nau. 5 Zuk atontzen didazu mahaia etsaien begi aurrean, ukenduz gantzutzen didazu burua; gainezka dut kopa. 6 Bai, zorionak eta leialtasunak inguratuko naute bizitzako egun guztietan; Jaunaren etxean biziko naiz amaigabeko egunetan.

Joan 14:27 «Agurtzerakoan, bakea, neure bakea, ematen dizuet; nik ematen dizuedan bakea ez da munduarena bezalakoa. Ez kezkatu, ez izan beldur.

Filipoarrei 4:7 Eta guk pentsa dezakeguna baino handiago den Jainkoaren bakeak zainduko ditu zuen gogo-bihotzak Kristo Jesusen bidez.

Esaera Zaharrak 3:24 Izu-ikararik gabe lotaratuko zara, oheratu eta gozogo gozo hartuko zaitu loak.

Salmoak 4:9 Bakean etzaten naiz eta berehala lokartzen, zuk bakarrik bainauzu, Jauna, lasai biziarazten.

Salmoak 32:18 Jaunak ditu zaintzen begirune diotenak, haren maitasunean itxaropen dutenak,

Erromatarrei 5:2 Berari esker, sinesmenaren bidez eman digu Jainkoak bere onginahia geureganatzea. Egoera honetan sendo irauten dugu eta harro gaude Jainkoaren aintza iritsiko dugulako itxaropenez.

Isaias 55:12 Pozaren pozez irtengo zarete, bake osoan ekarriko zaituztete. Zuek ikustean, mendi eta muinoek poz-irrintzika ekingo diote, landako zuhaitz guztiek txalo joko.

Joan 16:22 Zuek ere triste zaudete orain, baina berriro agertuko natzaizue, eta poztu egingo zarete, eta poz hori inork ez dizue kenduko.

Lukas 12:9 baina jendaurrean ukatzen nauena ukatu egingo dute Jainkoaren aingeruen aurrean.

Mateo 10:30 Zuen buruko ileak ere denak zenbatuak dauzka Jainkoak.

Isaias 54:10 Mendiak beren lekutik aldentuko eta muinoak koloka jarriko balira ere, nire maitasuna ez da zuregandik aldentuko, zure zorionaren aldeko nire konpromisoak ez du kolokarik egingo. Hala diot nik, barrubarrutik maite zaituen Jaunak».

Mateo 11:28-30 «Zatozte niregana, nekatu eta zamatu guztiok, eta neuk emango dizuet atsedena. **29** Hartzazue nire uztarria eta ikasi niregandik, gozoa eta bihotz-apala bainaiz ni, eta aurkituko duzue bizitzarako atsedena; **30** eramanerraza baita nire uztarria eta arina nire zama».

Kantarik Ederrena 2:10 Honela mintzo zait maitea: Jaiki zaitez, ene ederra, ene laztana, zatoz nirekin.

Oseas 2:14,19,20 Mahastia eta pikondoa hondatu egingo dizkiot, haietaz baitzioen: «Maitaleek emandako sari ditut». Sastraka bihurtuko ditut eta basapiztiek jango dituzte. **19** Baalen izenak ere ahotik kenduko dizkiot, eta ez da gehiago haien izenik aipatuko. **20** Egun hartan ituna egingo dut neure herriaren alde, basapiztia, hegazti eta narrastiekin. Uztaiak eta ezpatak hautsiko ditut, lur honetan ez da gehiago gudurik izango. Lasai biziaraiziko dut neure herria.

Irteera 3:14 Jainkoak erantzun zion: –Izango naizena naiz. Beraz, honela esango diezu israeldarrei: «Izango naizena naiz» deritzanak bidali nau zuengana.

Oseas 13:4 Honela dio Jaunak: «Baina ni, Jaun hau, zure Jainkoa naiz Egipton zeundenetik. Ez duzu ni beste jainkorik aitortu behar, ez baita nitaz kanpo beste salbatzailerik.

Joan 15:14 Zuek nire adiskide izango zarete, nik agintzen dizuedana egiten baduzue.

Apokalipsia 3:20 Hara, atean nauzu deika; norbaitek nire ahotsa entzuten badu eta atea irekitzen, harenean sartuko naiz eta elkarrekin afalduko dugu.

Pastor T. John Franklin
Church of Salvation, Healing, and Deliverance
COS-HAD.org